




Abusu=La Peña



Iturria: Postalak. @ Euskal Museoa - Bilbao - Museo Vasco.
Fuente: Postales. @ Euskal Museoa - Bilbao - Museo Vasco.



ETENGABEKO

ALDAKETAREN HISTORIA

Mendeetan zehar, errotek, burdinolek eta gabiek Nerbioi-Ibaizabal ibaiertzean lan egin zuten Abusu auzoan. Presak eta ur-jauziak erabiltzen zituzten, baita inguruneke beste baliabide natural batzuk ere, hala nola burdina-minerala. Bilboko portua Mesetarekin eta Ebroko erriberarekin lotzen zuen bidea Abusutik igarotzen zen, eta lurralde horien arteko merkataritza-harremanetarako funtsezkoa zen. Meatzaritza biziak eta industria modernoak XIX. mendeari hasiera eman zioten eta XX. mendean zehar garatuz joan ziren. Biztanleria hazi egin zen, baita eraikin kopurua ere. Eraikinak hedatu eta garaiera irabazi zuten. Auzokideek, beren ekimenekin eta parte-hartzearekin, bizitza eman zioten auzoari. Joan zen mende erdialderako abesbatza bat, dantza-taldea eta antzerki-taldea zituen. Eta Santa Isabelen eta San Pedroren erromeria tradizionaletan oso giro ona izaten zen.

Historia de un continuo cambio


Molinos, ferrierías y martinetes trabajaron durante siglos en las orillas del río Nervión-Ibaizabal a su paso por el barrio. Aprovechaban las presas y saltos de agua y también otros recursos naturales del entorno, como el mineral de hierro. El camino que enlazaba el puerto bilbaíno con la Meseta y la ribera del Ebro discurría por La Peña, vital para las relaciones comerciales entre estos territorios. Una intensa actividad minera y una industria ya moderna daban comienzo en el siglo XIX y se desarrollaban a lo largo del XX. Va aumentando la población, también las edificaciones, que se expanden y crecen en altura. Los vecinos y vecinas, con sus iniciativas y participación, dan vida al barrio, que cuenta a mediados del pasado siglo con coro, grupo de danzas y de teatro. Y no falta la animación en las tradicionales romerías de Santa Isabel y San Pedro.

IBAIAREN ETA MENDIAREN ARTEAN

Aritz auzoan (Basaurin) bat egin ostean, Ibaizabalek eta Nerbioik Bilborako bidea egiten dute, inguruko mendien artean meandro sakonak marraztuz. Ez dira oso mendi garaiak, baina malda gogorak dituzte. Horietako meandro batean dago auzoa, Pagasarri —668 m-koa— eta Ganekogorta —997 m-koa— mendien oinetan.


Ibaiak eta mendiak zerrenda estu batera mugatu dute hiri-lurzorua, eta Lan Campan eta Abusun hedatzen da. Alabaina, landa-paisaiak eta -bizimoduak bizirik jarraitzen dute mendi-hegal erdian, Buia eta Seberetxe auzoetan.

Bolintxu erreka mugarritzen ditu Bilbo eta Arrigorriaga udalerriak.



San Cristóbal irla 1813 inguruan.
Iturria: Bilduma partikularra.

La isla de San Cristóbal en torno a 1813.
Fuente: Colección particular.



"Carte des environs de Bilbao" (Paris, 1836).
Iturria: © Euskal Museoa-Bilbao-Museo Vasco.

"Carte des environs de Bilbao" (Paris, 1836).
Fuente: © Euskal Museoa-Bilbao-Museo Vasco.

Entre el río y el monte

Tras unirse en Ariz (Basauri), Ibaizabal y Nervión discurren hacia la cabecera de Bilbao dibujando pronunciados meandros al quedar encajado su curso entre los montes próximos. Unos montes no muy altos, pero sí de fuertes pendientes. En uno de estos meandros se emplaza el barrio, al pie del Pagasarri (668 m.) y Ganekogorta (997 m.).

El río y el monte han reducido a una estrecha franja el suelo urbano, que se extiende a lo largo de La Campa y Abusu. Pero el paisaje y las formas de vida rurales perviven a media ladera, en los barrios de Buia y Seberetxe.

El arroyo Bolintxu marca el límite entre los términos municipales de Bilbao y Arrigorriaga.



Iturria: 2013ko ortoargazkiak.
Kartografia Atala, Lehendakantza
Departamentua, Bizkaiko Foru
Aldundia.

Fuente: Ortofotografías 2013.
Sección de Cartografía.
Departamento de Presidencia.
Diputación Foral de Bizkaia.

JATORRIA

Aurkitutako historiaurreko eta antzinateko lekukoek itsasadarren burualdera begirarazten digute, auzotik gertuen dagoen eremura.

Bilboko hiria fundatu baino bost mila urte lehenago, Artxanda eta Pagasarri inguruko mendietan jendea zegoen jada. Halaxe erakusten dute Abril eta Ganguren gailurren artean dauden Hirumugarrietako trikuharriak eta aurkitu diren Neolito garaiko tresna-hondarrek. K.a. II. mende inguruan, aldatu egin zen espazioa antolatze modua: grabitate-zentroa Malmasingo gotorlekura (Arrigorriagara, 360 m-ra) lekualdatu zen. Harresi-barru horretako bizilagunek nekazaritza ezagutzen zuten, eta abeltzaintzan ere aritzen ziren, Pagasarri-Ganekogorta inguru menditsuak eskaintzen zizkien aukerak baliatuz.



Hirumugarrietako trikuharriak (Artxandan), eta bertan aurkitutako materialak.
Iturria: Arkeologi Museoa, Santiago Yanizen argazkiak.
Dólmenes de Hirumugarrieta (Artxanda) y materiales hallados en ellos.
Fuente: Arkeologi Museoa. Fotografías Santiago Yaniz.

Erromatarren garaian, goietako herrixkak bertan behera utzi eta mendi-hegal erdian ezarri ziren: Abrisketan (Arrigorriagan), Finagan (Basaurin), Zaratamon eta Galdakaon, adibidez. Baliabide naturalak (Trianoko eta Ollarganeko burdin-zainak) ustiatzea eta merkataritza garatzea ziren erromatarrei gehien interesatzen zitzaizkien jarduerak.

Finagako nekropolis.
VI-VII mendeetakoak.
Iturria: García Camino, I.
'Arqueología y poblamiento en Bizkaia, siglos VI-XII', Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbao, 2002.

Necrópolis de Finaga siglos VI-VII.
Fuente: García Camino, I. 'Arqueología y poblamiento en Bizkaia, siglos VI-XII', Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbao, 2002.

Los orígenes

Los testimonios hallados de época prehistórica y antigua nos hacen mirar hacia la cabecera de la río, hacia el entorno más cercano del barrio.

Cinco mil años antes de la fundación de la villa de Bilbao ya se ocupaban las zonas de montaña próximas de Artxanda y Pagasarri. Así lo confirman los dólmenes de Hirumugarrieta (montes Abril y Ganguren) y restos de instrumental lítico hallados, correspondientes al Neolítico.

En torno al siglo II a. C. se produce un cambio en la organización del espacio, el centro de gravedad se traslada al castro de Malmásin (Arrigorriaga, 360 mts.). Los habitantes de este recinto amurallado conocen la agricultura y practican la ganadería, de grandes posibilidades en el área montañosa de Pagasarri-Ganekogorta.



Malmasingo gotorlekua. Iturria: Arkeologi Museoa.
Castro de Malmásin. Fuente: Arkeologi Museoa.



Abrisketako San Pedro (Arrigorriaga).
Iturria: Arkeologi Museoa.

San Pedro de Abrisketa (Arrigorriaga).
Fuente: Arkeologi Museoa.




En época romana, se abandonan los poblados fortificados de altura y aparecen nuevos a media ladera, como en Abrisketa (Arrigorriaga), Finaga (Basauri), Zaratamo o Galdakao. La explotación de los recursos naturales -los filones de hierro de Triano y Ollargan- y el desarrollo del comercio fueron de interés para los romanos.

BILBOKO HIRIAREN FUNDAZIOAZ

X. mendetik aurrera hasi zen Bilboko hiria izango zenaren lurraldea eratzen. Azkenean, 1300. urtean fundatu zen, estuarioaren gibelean (Ibeni ibian, hain zuzen), itsasadarrak nabigagarria izateari uzten dion eta Gaztelarako bideak abiatzen diren lekuan. Arkeologiak fundazioaren aurreko lekuko bi baino ez ditu aurkitu: Santiagoko hilerria eta Ibeniko saltokia (XII. mendekoak biak).

Ibaizabal eta Buia ere 1300 aurrekoak izango dira, segur aski. Hiria fundatutakoan, gainerakoak baino garrantzitsuagoa zen lehen auzo hori. Errotak eta burdinolak abian jartzeko baliabide hidraulikoak (ibaia eta errekek) zituen. Gertu zegoen Ollarganeko burdina-meatzeetatik eta besteertzeko Begoñakoetatik, eta Urduñako errege-bideak iragaten zuten.



(8. lerroa ...) ... Muga hauekin:


- Balmasedatik datorren ibaiaren (Kadagua) urak bat egiten duten Zorrotzarako muturretik hasi eta Zornotzako zelaitik datorren errekaraino, Pertxetarrantz (Alonsotegiko auzpa gaurregun)
- Mendibizkarretik gora Egiluzeko kortabasoraino eta hortik Pagasarri. Olaluzetara eta Bujanañoikora (gaurregun Buja)
- Mendikate gainetik Etsebarriko ibiraino eta Etsebarriko bidetik Gangurenko mendikateraino
- eta hemendik Deustuko muturreraino, Lutsxanarantz.

(línea 8 ...) ... Que por términos tengáis:

- desde el puntal de Zorroza donde se juntan las aguas del río que viene de Balmaseda (el Kadagua) hasta el arroyo que viene por el campo de Zornoza en dirección a Percheta (actual barrio de Alonsotegui)
- desde el cerro arriba hasta el selº de Egiluz y desde ahí al Pagasarri, a Olaluzeta y a Buiana de Suso ... (actual Bujaño)
- desde por encima de la sierra hasta el vado de Echevarri y desde el camino de Echevarri hasta la sierra de Ganguren
- y desde aquí hasta el puntal de Deusto en dirección a Luchana.

Bilbo hiriaren barrutia, 1300eko fundazioari hiri-gutunaren arabera.
Iturria: Bilboko Udalaren agiritegia.

Término de la villa de Bilbao según la Carta puebla fundacional (1300).
Fuente: Archivo del Ayuntamiento de Bilbao.



Itsasadarra, Bilboko hiria estuarioaren gibelean duela.
Iturria: 'A Draught of the Coast of Biscay from St. John de Luz east to St. Andero west with a Particular Survey of the River and an Exact Plan of the Town of Bilbao...', (Londres, 1742, faksimile-argitalpena, Madri, 1980 inguruna). © Euskal Museoa - Bilbao - Museo Vasco.

La Ría con la villa de Bilbao al fondo del estuario.
Fuente: 'A Draught of the Coast of Biscay from St. John de Luz east to St. Andero west with a Particular Survey of the River and an Exact Plan of the Town of Bilbao...', (Londres, 1742, Edición facsimil Madrid, aprox. 1980). © Euskal Museoa - Bilbao - Museo Vasco.



Hiria fundatu aurretik Ibeniko ibian zegoen saltokiaren birsorkuntza (XII. mendekoa). San Antón elizan aurkitutako hondaknak eta Europa atlantikotik ekarritako zeramikak-hondarrak.
Iturria: Arkeologi Museoa.

Recreación de la lonja comercial, situada en el vado de Ibeni, anterior a la fundación de la Villa (siglo XII). Restos de la misma hallados en la iglesia de San Antón, así como de cerámica procedente de Europa atlántica.
Fuente: Arkeologi Museoa.

En torno a la fundación de la villa de Bilbao

A partir del siglo X comienza a formarse el territorio donde nacerá la villa de Bilbao. Ésta finalmente se funda al fondo del estuario (1300), en el vado de Ibeni, lugar donde la ría deja de ser navegable y arrancan los caminos hacia el interior de Castilla. La arqueología sólo ha hallado dos testimonios anteriores a la fundación: el cementerio de Santiago y la lonja comercial de Ibeni, ambos datados en el siglo XII.

Ibaizabal y Buia probablemente también existían antes de 1300. Tras la fundación de la Villa, el primero de estos barrios superaba en importancia a los demás. Disponía de recursos hidráulicos para hacer funcionar molinos y ferrerías, el río y arroyos, se encontraban próximas las minas de hierro de Ollargan, también las de Begoña de la margen contraria, y era recorrido por el camino real de Orduña.



Mirafloreseko Ponton errota, XVI. mendekoa.
Iturria: Album de Paisajes y Vistas de España. (1853 inguruan).
© Euskal Museoa - Bilbao - Museo Vasco.

Molino del Pontón en Miraflores, fechado en el siglo XVI.
Fuente: "Album de Paisajes y Vistas de España" (aprox. 1853).
© Euskal Museoa - Bilbao - Museo Vasco.

La explotación de los recursos naturales

El aprovechamiento del bosque y del caudal del río, las minas, fundamentalmente las de Miribilla y Ollargan, y la conexión con el puerto bilbaíno y los caminos hacia el interior de la península favorecieron la existencia de potentes ferrerías en el entorno del barrio Ibaizabal, también en Arrigorriaga y Etxebarri.

Junto a éstas, se situaban aguas arriba de la Villa los molinos, para así aprovechar la fuerza motriz del río, presas y saltos de agua. Se recurría al trigo procedente de Castilla, que llegaba por vía terrestre también al andaluz y al de la Europa atlántica, que lo hacían por mar.

BALIABIDE NATURAL EN USTIAPENA

Ibaizabal auzoaren inguruetan, bai eta Arrigorriagan eta Etxebarrin ere, ahalmen handiko burdinolak zeuden, inguruko basoak, ibaiaren emaria eta meategiak (Miribillakoa eta Ollarganekoa, batez ere) ustiatzeari esker eta Bilboko portuarekin eta penintsularen barrualdera zihoazen bideekin zeukaten lotura zela eta.

Horien ondoan, ibaian gora, errotak zeuden, ibaiaren beraren, presen eta ur-saltoen indar eragilea baliatzeko. Garia kanpotik ekartzen zuten: Gaztelatik eta Andaluziatik (lurrez) eta Europa atlantikotik (itsasoz).




Boluetako ikuspegia. Iturria: 'Vista de Volueta' (1850 inguruan).
Durangoko Arte eta Historia Museoa.

'Vista de Volueta' (aprox. 1850).
Fuente: Museo de Arte e Historia de Durango.

El camino de Orduña


Bilbao era un importante puerto comercial que establecía relaciones con Europa, América y el interior de la península. Desempeñaba una significativa función de intermediación comercial entre estos territorios. En el tráfico mercantil con la meseta castellana, el camino de Orduña, que recorría el barrio, era el de mayor tradición e importancia histórica.

Este camino partía del centro bilbaíno y discurría por el llamado boquete de Ollargan, paso estrecho y peligroso abierto por el río. En el siglo XVIII se evitaba por Miraflores y el puente nuevo de Bolueta, para llegar después a Arrigorriaga por Venta Alta y seguir el curso del Nervión.



Boluetako zubi berria Bilbotik Urduñara bitarteko bidea osatzen zuen, 1762-1766 bitartean eraiki zuten.
Iturria: BFAH/AHFB, Argazkiak, G-119.

El puente nuevo de Bolueta formaba parte del camino de Bilbao a Orduña y fue construido en 1762-1766.
Fuente: BFAH/AHFB, Fotografía, G-119.



Iturria: 1927ko Bizkaiko mapa, Kartografía Zerbitzua. Lehendakantza Departamentua, Bizkaiko Foru Aldundia.

Fuente: Mapa de Bizkaia 1927. Servicio de Cartografía, Departamento de Presidencia. Diputación Foral de Bizkaia.

URDUÑAKO BIDEA

Bilbo merkataritza-portu garrantzitsua zen, eta Europarekin, Amerikarekin eta penintsularen barrualdearekin zituen harremanak. Lurralde horien artean, bitartekari-lan handia egiten zuen merkataritzan. Gaztelako goi-lautadarekiko merkataritza-zirkulazioan, auzoa iragaten zuen Urduñako bidea zen tradizioz eta garrantzi historikoz handienekoa.

Errepidea Bilboren erdigunetik abiatzen zen, eta Ollarganeko Zubialdea deritzonarentzat, ibaian irekitako pasabide estu eta arriskutsurantz, jotzen zuen. XVIII. mendean, Mirafloresetik eta Boluetako zubi berritik saihesten zen, Beteluritik Arrigorriagara heldu eta Nerbioren ibilguari jarraitzeko.

INDUSTRIA TRADIZIONALAREN GAINBEHERA

Industria tradizionalak (sutegiak, burdinolak, zurrategiak, irin-erroak...) ibaian gora metatzen ziren. Bilboko biztanleen eskariari erantzuten zioten. Helburu horrexekin jaio ziren Pontoneko labeak eta okindegia (1794an).

XIX. mendearen lehen herenean, krisi- eta desindustrializazio-aldia hasi zen. Errotak eta burdinolak zaharkituta geratu ziren: batzuk bertan behera utzita eta beste batzuk erabilerarik gabe.


Baina, aldi berean, berritzeko eta modernizatzeko lehen saiakerak egin ziren; industria-ekimen berriak jarri ziren martxan, horietako batzuk ibaiertzean zeuden instalazio zahar haiek baliatuz.

Hona hemen horietako ekimen batzuk: Santa Ana de Bolueta siderurgia (1843an); Máximo Aguirrerren Mirafloresko lantzeria-lantegia, espartinak egiten zituen (1845ean); Juan Cruz Artiachen Pozondo, La Isla eta La Magdalena errota irin-lantegiak —haren seme-alabek Harino Panadera eta lobak Galletas Artiach fundatu zuten—; eta Nuestra Señora de la Piedad izeneko beirazko botilen, edalontzien eta beirateriaren lantegia (1844an).

Dena den, beste artisau-jarduera batzuk ere bazeuden. Jose Maria Uresandik, artean zurezko ontziak eraikitzen zituen maisuak, Abusurako bidean zuen bere ontziola.

Nuestra Señora de la Piedad de Ibaizabal kristal-fabrikaren grabatua, J. E. Delmas-ek egin (1845).
Iturria: BFAH/AHFB, AJ01286/060.

Grabado de J. E. Delmas de la fábrica de cristalería Nuestra Señora de la Piedad de Ibaizabal (1845).
Fuente: BFAH/AHFB, AJ01286/060.




La decadencia de la industria tradicional

La industria tradicional (fraguas, ferrierías, curtidurías, harineras, etc.) se concentraba aguas arriba de la Villa. Atendía la demanda de la población urbana bilbaína, finalidad con la que nacieron los hornos y panadería del Pontón (1794).

En el primer tercio del siglo XIX comienza un período de crisis y desindustrialización. Molinos y ferrierías quedan anticuados, algunos de los mismos son abandonados, otros caen en desuso. Pero, al mismo tiempo, surgen los primeros intentos de renovación y modernización, nuevas iniciativas industriales que reaprovechan en ocasiones las viejas instalaciones mencionadas, emplazadas a orillas del río a su paso por el barrio.

Algunas de estas iniciativas fueron: la siderurgia Santa Ana de Bolueta (1843), la Fábrica de Lencería de Miraflores (1845), de Máximo Aguirre, dedicada a fabricar tela para alpagatas, las fábricas de harinas de Pozondo, La Isla y La Magdalena errota, propiedad de Juan Cruz Artiach -sus hijos fundarán más tarde Harino Panadera y su sobrino Galletas Artiach-, y la fábrica de botellas de vidrio, vasos y cristalería denominada Nuestra Señora de la Piedad (1844).

Pero aún conviven con otras actividades de carácter artesanal. José María Uresandi, maestro constructor de embarcaciones aún de madera, tenía por esas fechas su astillero en el camino de La Peña.



Boluetaiko Santa Anaren instalazioak, labeen eta hondoko Electraren tominiak nagusitzen direla.
Iturria: BFAH/AHFB, Argazkiak, R. 417-0502.

Instalaciones de Santa Ana de Bolueta, donde sobresalen las chimeneas de los hornos y de la Electra al fondo.
Fuente: BFAH/AHFB. Fotografía, R. 417-0502.



Lamu-zurraketako Smith lantegia Abusurako bidean.
Iturria: "Album de Paisajes y Vistas de España" (1853 inguruan). © Euskal Museoa - Bilbao - Museo Vasco.

Fábrica de curtidos de Smith en el camino de La Peña.
Fuente: "Album de Paisajes y Vistas de España" (aprox. 1853).
© Euskal Museoa - Bilbao - Museo Vasco.




Abusuko meategiak XX. mendearen hasieran. Iturmia: Argazagintza Atala (1776 errege), Bizkaiko Foru Agintegia.
Minas de La Peña a principios del siglo XX.
Fuente: Sección de Fotografía (REG. 1776). Archivo Foral de Bizkaia.

Ollargan inguruan, Santa Ana de Bolueta ren jabegoko meategietan, hasi ziren, lehenengoz, mea ateratzen. Ondoren, Miribillako en txanda izan zen. Josefa, Malaespera, Sífide, Julia eta Abandonada dira La Peña eta inguruetan ustiatu ziren meategi nagusien izenak. Besteak beste, J.C. Levisson eta Lezama Leguizamón familia ziren haien ugazabak.


BILBOKO MEATZARITZA-BARRUTIA

XIX. mendearen azken laurdenetik aurrera abiatu zen Bizkaiko meatze-arroaren ustiapen masiboa. Trianoko barrutia izan zen hedadura handienekoa eta mea kantitate handienak eman zituen.

Bilboko meategiak, protagonismo txikiagokoak, batik bat itsasadarraren ezker aldean barreiatuta zeuden hobietan zeuden.



Bilboko hiru ingunearen hegoaldean zeuden burdina-hobien emakidak (1968koak).
Iturmia: Meatzaritza Saila, Energiaren Euskal Erakundea.
Concesiones de minas de hierro ubicadas en la zona sur del casco urbano de Bilbao (1968).
Fuente: Departamento de Minería. Ente Vasco de la Energía.



Sífide meategiko 1898ko lanen planoak.
Iturmia: Meatzaritza Saila, Energiaren Euskal Erakundea.
Plano de labores de la mina Sífide de 1898.
Fuente: Departamento de Minería. Ente Vasco de la Energía.




Malaespera meategiko 1904ko lanen planoak.
Iturmia: Meatzaritza Saila, Energiaren Euskal Erakundea.
Plano de labores de la mina Malaespera de 1904.
Fuente: Departamento de Minería. Ente Vasco de la Energía.

El coto minero bilbaíno

A partir del último cuarto del siglo XIX comienza la explotación masiva de la cuenca minera de Bizkaia. El coto de Triano fue el de mayor extensión y del que se extrajeron mayores cantidades de mineral.

Las minas de Bilbao, de menor protagonismo, se repartían en yacimientos dispersos que se localizaban fundamentalmente en la margen izquierda de la ría.


La extracción de mineral comenzó primero en la zona de Ollargan, en minas propiedad de Santa Ana de Bolueta; le siguieron las de Miribilla, Josefa, Malaespera, Sífide, Julia, Abandonada son los nombres de las principales minas que se explotaron en La Peña y sus alrededores. J. C. Levisson y la familia Lezama Leguizamón figuran entre sus propietarios.



Malaespera meategia (1930 inguruan).
Mina Malaespera (en torno a 1930).



Barbier trefilategiaren langileak 1949an.
Personal de la trefilería Barbier empleado en 1949.



Barbier trefilategiko bulegoak eraikitzeko proiektua.
Iturria: BFAH/AHFB, Udalak, BILBAO F-0104/384.
Proyecto de construcción de oficinas de la trefilería Barbier.
Fuente: BFAH/AHFB, Municipal, BILBAO F-0104/384.

INDUSTRIA MODERNOA

XIX. mendearen amaieran, industriaren modernizazio-prozesua abiatu zen. Siderurgia handiak Nerbioi-lbaizabal ibaiaren behealdean (Barakaldon eta Sestaon) eraiki ziren, eta, Bilboren erdialdean (Begoña, Abuso, Irala, Basurtu, Olabeaga eta Deustu auzoetan), industria-eraztun bat hasi zen eratzen.

Abusun, tradizioari lotutako industria-kokaleku esanguratsu bat sortu zen, XX. mendearen hasieran. Antzinatek gauzatzen ziren jardueri jarraibidea ematen zien, eta lehengo establezimenduak baliatzen ditu. Horixe da Errotabarri eta Landa errota erroten kasua.

Bi sozietate ziren nagusi: Barbier Hermanos, alambre eta puntak egiten zituztenak, eta Power, zaku eta jute-ehunen fabrikatzaileak. Horien ondoan, besteak beste, paperari, marmol-zerraketari, ardazgintzari, pinturari, drogeriari, eskuilagintzari, fideogintzari eta koñakari lotutako lantegiak zeuden.



Jatorri frantziarreko Hermanos Barbier sozietatearen pabiloiak, Errotabarriko antzinako erroten eta paper-lantegiaren lurretan eraiki zituzten.
Iturria: BFAH/AHFB, Udalak, BILBAO F-0082/637.
Los pabellones de la sociedad de origen francés Hermanos Barbier, se levantaron en terrenos de un antiguo molino (Rotabari) y de la fábrica de papel.
Fuente: BFAH/AHFB, Municipal, BILBAO F-0082/637.

La industria moderna


A finales del siglo XIX comienza el proceso de modernización industrial. Las grandes siderurgias se levantan en el curso bajo del Nervión-Ibaizabal (Barakaldo y Sestao), al tiempo que se va configurando un "anillo" industrial en torno al centro bilbaíno en los barrios de Begoña, La Peña, Irala, Basurtu, Olabeaga y Deusto.

En La Peña, a principios de siglo XX se crea un significativo asentamiento industrial que se caracteriza por enlazar con la tradición. Da continuidad a actividades que se desarrollaban desde antiguo y aprovecha antiguos establecimientos, es el caso de los molinos de Rotabari y Landa errota.

Junto a las dos principales sociedades, Barbier Hermanos, dedicada a la fabricación de alambres y puntas, y Power, a los sacos y tejidos de yute, convive una amplia gama de talleres vinculados al papel, aserrado de mármoles, tornillos, pinturas, droguería, cepillos, fideos y cognac.



1917 inguruan, Ricardo Power enpresan 205 ehunle zeuden beharrean, eta greba-gogorra egin zuten, beren lan-baldintzak hobetearren.
Iturria: "El Noticiero Bilbaíno", 1917ko uztailaren 7a.
En torno a 1917 los tejedores empleados en la fábrica de Ricardo Power ascendían a 250 y protagonizaron una fuerte huelga para mejorar sus condiciones laborales.
Fuente: "El Noticiero Bilbaíno", 7 de julio de 1917.




Olazar, Odnoszola y Compañía lantegian fideoak eta paperezko poltsak egiten zituzten, Eduardo Barandiaranek iriaren aurrean zuen eraikinean.
Iturria: BFAH/AHFB, Udalak, BILBAO F-253/373.
Los talleres de Olazar, Odnoszola y Compañía se dedicaban a la fabricación de fideos y bolsos de papel en el edificio propiedad de Eduardo Barandiaran, frente a la isla.
Fuente: BFAH/AHFB, Municipal, BILBAO F-253/373.



Garbitzaileak Ponton errotan (1890ean).
Iturria: © F/ Eulalia Abaitua.
Euskal Museoa – Bilbao – Museo Vasco.
Lavanderas en el molino del Pontón (1890).
Fuente: © F/ Eulalia Abaitua.
Euskal Museoa – Bilbao – Museo Vasco.




Abusu auzoa (1890ean).
Iturria: © F/ Eulalia Abaitua.
Euskal Museoa – Bilbao – Museo Vasco.
Barrio de La Peña (1890).
Fuente: © F/ Eulalia Abaitua.
Euskal Museoa – Bilbao – Museo Vasco.



Tranbia-pasagunea.
Iturria: BFAH/AHFB, Argazkiak,
R.417-0077.
Paso del tranvía.
Fuente: BFAH/AHFB, Fotografía,
R.417-0077.



La Campako eskolak.
Iturria: © Euskal Museoa – Bilbao – Museo Vasco.
Las escuelas de La Campa.
Fuente: © Euskal Museoa – Bilbao – Museo Vasco.



Itsasadarraren meandroa Abusun (1875ean).
Iturria: © F/ P. T. de Errazquin.
Euskal Museoa – Bilbao – Museo Vasco.
Meandro de la ría en La Peña (1875).
Fuente: © F/ P. T. de Errazquin.
Euskal Museoa – Bilbao – Museo Vasco.


PAISAIA ETA ETA HIRI-TRANSFORMAZIOAK

1863an, Bilbao-Tutera trenbidea inauguratu zuten. Abusu auzoa zeharkatzen zuen, eta, Nerbio-Ibaizabal errekarren ibilguari jarraiki, Bilboko portua Gaztelako goi-lautadarekin eta Ebroren ibaialdearekin lotzen zuen.

Modernizazio-prozesuak —trenbidea, meategiak, lantegiak— aldatu egin zituen lehen ibaia, garbitzaileak eta ortuak protagonista nagusi zituen inguru horretako bizimodua eta paisaia.

Antonio Truebak esan zuenez, San Kristobal irlako makina-etxea obra erraldoia zen. Ura hornitzea eta argiteria publikorako argindarra sortzea ziren haren egitekoak. Ponpen bidez, ura jasotzen zuen Mirafloresko depositura (1886an).

1890ean, Abandoko elizate osoa Bilbon sartu zen. Abusu auzoa Bilbo Zaharra barrutira eraman zuten. Udal-zerbitzuak zabalduz joan ziren; horixe da Ibaizabalgo eta Buiako eskolen kasua.



Ur-horidurako planaren makina-etxea, Ernesto Hoffmeyerrek egina.
Iturria: © Euskal Museoa – Bilbao – Museo Vasco.



Casa de máquinas del plan de abastecimiento de agua elaborado por Ernesto Hoffmeyer.
Fuente: © Euskal Museoa – Bilbao – Museo Vasco.



Paisaje y transformación urbana

En 1863 se inauguraba el ferrocarril Bilbao-Tudela. Atravesaba el barrio de La Peña y, siguiendo el curso del Nervión-Ibaizabal, ponía en contacto el puerto de Bilbao con la meseta castellana y la ribera del Ebro.

La modernización (ferrocarril, minas, fábricas) irá trastocando las formas de vida y el paisaje de este enclave, en el que eran los protagonistas el río, las lavanderas y las huertas.

Obra verdaderamente colosal, como así la calificara Antonio Trueba, era la casa de máquinas de la isla de San Cristóbal. Estaba destinada al abastecimiento de aguas y también a la producción de energía eléctrica para el alumbrado público. Elevaba agua mediante bombas al depósito de Miraflores (1886).

En 1890 la anteiglesia de Abando se incorporó en su totalidad a Bilbao. El barrio de La Peña pasó a integrarse en el distrito de Bilbao La Vieja. Los servicios municipales se fueron ampliando, es el caso de las escuelas de Ibaizabal y Buia.



Auzoa hirurogeita hamarreko lehen urteetan.
El barrio a inicios de los años sesenta.

DEMOGRAFIAREN ETA ERAIKUNTZAREN LEHERKETA

1950etik 1975era bitartean, itsasadarreko ekonomiaren dinamismoa eta demografia-hazkundera nabarmendu ziren. Bilbok eta Basauri, Arrigorriaga, Etxebarri eta Galdakao udalerriek osatutako multzoak protagonismo handia izan zuten industriagune moduan. Hori dela eta, auzora biztanle berri ugari etorri ziren, lan bila.


Urte horietan zehar, meandroaren inguruko lurzoru librea hartzen zuten eraikinek Abusun, eta lantegiak eta etxebizitzak elkarren ondoan zeuden. Etxebizitzak gero eta gorago hasi ziren heltzen. Sasoi horretakoak dira Santa Isabeleko dorreak eta Ollarganeko langile-blokeak.

Trenbidea iragan eta mendirantz egin zuten, eta txabolak agertu ziren, heltzen zen jende andana hartzeko azkar eraikitakoak.

Meatzaritza jardunean zenez artean, inguru horren paisaia eta bizileku-eginkizuna aldatzen lagundu zuen. Malaespera meategiko barrena-zuloak 12:00etan eta 17:00etan egiten ziren, eta, beraz, ordu horietan ezin zen kalera irten.


La explosión demográfica y edificatoria

A lo largo del período de 1950 a 1975 destaca el dinamismo económico y el crecimiento demográfico de la Ría, Bilbao y su cabecera con los municipios de Basauri, Arrigorriaga, Etxebarri y Galdakao van a tener un protagonismo importante como zona industrial. De ahí la llegada de nuevos habitantes al barrio ante las oportunidades de trabajo.



Bilbokoa metropolaldearen ikuspegia Abusutik (1974koa).
Iturria: FOAT.

Vista del área metropolitana bilbaína desde La Peña (1974).
Fuente: FOAT.



Artean jardunean zen meatzaritza-ustiapenaren xehetasuna (1969koa).
Iturria: FOAT.

Detalle de explotación minera aún en activo (1969).
Fuente: FOAT.

En La Peña, durante estos años, la edificación ocupa el suelo libre en torno al meandro, donde conviven talleres y viviendas. Viviendas que se expanden y crecen en altura. De estas fechas son las torres de Santa Isabel y los bloques obreros de Ollargan.

También rebasan la línea ferroviaria, suben hacia el monte y se hacen presentes las chabolas, que había que construir rápido para alojar a toda la población que llegaba.

La minería, aún en activo en esta época, contribuyó a alterar el paisaje y las funciones residenciales de este enclave. Los barrenos de la mina Malaespera se producían a las 12h. y a las 17h., momentos en que no se podía salir a la calle.

UMOREA ETA JAIK

Futbola izan da auzoko zaletasunik handienetakoa. Garai batean mea garbitzeko uraren dekantazio-baltsak zeuden lekuan, sikatu ostean, futbol-zelaiak sortu ziren. Zehazki, horixe izan zen Club Deportivo Peñaren futbol-zelaiaren sorburua.

Horietako batzuk auzotarren ahaleginari eta partaidetzari esker eraiki zituzten. Ez da talderik eta partidarik falta izan, lodien eta argalen aulkako tradizionala barne.

Auzo-bizitzaren alaiagarri izan dira, halaber, Santa Isabel erromeria (lehen, uztailaren 8koa), Arrigorriagako udaleko agintariak egon ohi zirena; La Campan egiten zen San Pedro erromeria (ekainaren 29koa); eta Kartoizko Banda, bertako biztanleek osatua.



Lodien eta argalen arteko partida.
Partido de gordos y flacos.



Athletic 1956an egindako ongi-etorria. Abusutik pasatzerakoan. Garaipenak ospatzeko ibilbideak Mirafloresetik Bilborako bidea egiten zuen.

Recibimiento al Athletic en 1956 a su paso por La Peña. El recorrido para festejar sus triunfos iba desde Miraflores hasta Bilbao.

Humor y fiestas

Una de las aficiones fuertes del barrio ha sido el fútbol. Donde en otros tiempos hubo balsas de decantación de agua para el lavado del mineral, tras ser desecadas, se crearon campos de fútbol. En concreto ese fue el origen del campo de fútbol del Club Deportivo Peña.

Alguno de ellos se construyeron con el esfuerzo y la participación del propio vecindario. No han faltado los equipos y los partidos, incluido el tradicional de gordos y flacos.

Han animado también la vida del barrio la romería de Santa Isabel (antes el 8 de julio), a cuya misa mayor acudían las autoridades del Ayuntamiento de Arrigorriaga, la romería de San Pedro (29 de junio), que se celebraba en La Campa, y la banda de cartón, compuesta por sus habitantes.




Arrigorriagako udaleko agintariak Santa Isabelen (1928an).
Autoridades del Ayuntamiento de Arrigorriaga en Santa Isabel (1928).



Eta sasoi batean Nerbioi-Ibaizabaleko uretako bainuak usuak ziren moduan, halaxe ziren angulak eta angula-ontziak edo anguleroak ere. Magallon, haietako azkena eta ezagunena.

Y si en su día fueron frecuentes los baños en las aguas del Nervión-Ibaizabal, también las angulas y los anguleros. Magallon, el último y más conocido de ellos.



Montefuerteko zelaia, Ortzikoko (bere errekaetoarekin eta txakolinarekin) eta Bolintxuko presak aisialdirako sarritan aukeratutako lekuak izan dira.

Las campos de Montefuerte, Ortzikoko con su riachuelo y txakoli y las presas de Bolintxu han sido lugares frecuentados en momentos de ocio.

ENTRETENIMENDUA ETA AISIA

Batzuetan, ibaia eta mendia oztopo izan dira auzoaren bizitzan; nahikoa da antzina-antzinatik gertatu izan diren uholde sarrien ondorioak gogoratzea. Halere, auzotarren entretenimendurako, jostetarako eta aisiarako ere balio izan dute.



Nerbioi-Ibaizabal ibaiko bainuak Abusu auzoan (1914an). Iturria: Postalak. © Euskal Museoa - Bilbao - Museo Vasco.

Baños en el río Nervión-Ibaizabal a su paso por La Peña (1914). Fuente: Postales. © Euskal Museoa - Bilbao - Museo Vasco.



El Bando izeneko bainu-lekua (1930 inguruan).

Zona de baños en el punto conocido como "El Bando" (en torno a 1930).

Entretenimiento y ocio

En ocasiones el río y el monte han sido un obstáculo para la vida del barrio, no hay más que recordar las consecuencias de las frecuentes riadas ya desde tiempos atrás. Sin embargo, también han servido para el entretenimiento, la diversión y el ocio de sus habitantes.